

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak edozein negozio-ereduren muina dira, izan ere, ez baita haiek gabe denbora luzez iraungo duen enpresarik. Hori dela eta, oso garrantzitsua da hauek aztertzea xede-publikoa identifikatu ahal izateko. Gure kasuan, gure xede-publikoa produktu jasagarri eta beganoak kontsumitzen dituzten bezeroak izango dira, hauek baitira produktu hauen eskaria burutzen dutenak. Bezero hauen ezaugarriei dagokionez, ondorengoak direla esan dezakegu:



- Produktuen jasagarritasuna baloratzen duten pertsonak.
- Beganoak diren pertsonak.
- Produktu kosmetikoen kontsumo beganoa bultzatu nahi duten pertsonak.